

# BEGOÑAKO AMATXUREN IRUDIA

## Kondaira

Lenago beste eraikin batzuk izan ziran. Gaurko Basilika XVI mendekoa da, Sancho Martinez de Arregik diseñatua. Bere iru naberen eraikuntza XVII. mendean amaitu eben, au da, 1511 an asi zanetik mende bat iraun eban. Eraiki eben bitartean gotiko estiloa garatu eben eta Gil de Hontañonek egindako aurrealdea beste zatiak ez bezelako da.

XIX.mendean, Basilikak Bilboko arresia osatu eban. Izan be Zumalakarregi jeneral karlista bertatik urrean zauritu eben. Gudak erabat kaltetu eban eraikiña. Ori zala eta dorrea zein fatxadaren zati bat Jose Maria Basterrak zarbarritu eban 1902 eta 1907 bitartean. Zenbait zauritu ziran. Juan Dominguez falangista ezaguna eriotz zigorra jaso eban ekintza au ekiteagaitik.

Kalteak zarbarrituteko lanak 1993ko irailletik 1094 ko ekaiñera iraun eben, garbitu zituztenak. Kanpain diorreak 24 kanpai dauz, astunena tona bateakoa izanik.

Kanpaiak 1922an Zuitzako Sumuizwalden egin ebezan eta zazpi doñu ezbardin jotzen dabez.

### **BASILIKA TA SALBEA.**


Bilboko Salbe auzoaren izena, ortik portura etozan mariñelak, Basilikaren lenengo ikuspegi ebelako jatorriko. Bere bidaia amaituta egoela eskertzeko, Begoñako Andra Mariari Salbe bat esaten eutsoen.

**JAIK.** Basilikaren jau nausiak abustuaren 15 ean (Mariaren Jasokundea) eta Urriaren 11 (Begoñako Andra Maria ) ospatzen dabez.

Bilbao aldean eta Bizkai osoan Basilikara errores joateko oitura dago. Alan San Juan Lateralgo Basilikaz lotuta dagonez barkamen osoa lortzeko aukera dabe.



Francisco Mendieta, (1607). Ezkontza bat



1640 erretroula



Errromeria Begoñan

# BEGOÑAKO AMA GIJON-GO ZAINDARIA

**B**egoñako Andra Mariaren irudia Gijon Uriaren Zaindaria da ta Elizako kriptan dago entronizaturik.

Antziñako leiendak diñosku euskaldun arrantzale batzuk Terranobako uretan lanean ebiltzanean sekulako ekaitzak arrapatu ebazala. Bizitza galtzeko arrizku larria ikusirik Bizkaiko Zaindari Begoñako Amarengan jo eben laguntza eske ta eskeñi eutsoen Eliza bat eraikiko ebela aurrenekoz sartuko ziran kaian-portuan.

Bizirik sartu ei ziran Gijonen eta bertan eraiki eben gaur egun ezagutzen dan San Lorenzo ondartzan.

Azkar edatu zan errian Begoña Amaganeko zaletasuna euskaldun asko Portuko lanetan ziarduelako. XVII mendean Fuente Vieja muño ganean kokaturik egoan eta uriko Zaindartzan onartuta eukan. Bere jaia ospatzeko Abuztuko 15a aukeratu zan. Fuente Viejako auzoari Begoñako Auzoa emon eutsoen izentzat.

Begoñako Amaren irudia elizako kriptan aurkitzen da, ainbat santu ta santa irudien artean, zuri eder jantziakaz bere Jasokundea adieraziz, naiz eta Begoñako Amaren oizko irudiaren antzekotasunik ez izan. Kripta otoitz leku lez erabilten da.

Elizako aldare nagusian Kurutze ta Sagrarioagaz batera kriptako irudiaren ordezko bat agertzen da bear bada itxura ederragoagaz. Zaindartzako jai ta ospakizun go-rengoak jasotzen dauazana.

Abuztuaren 15 ko 12 tan Meza Nagusia ospatzen da erriko agintari aldunen aurrean.

Asturiasko erri usaiña emoten dautso egun orreri gaita ta danbolin soñu bai ta lurrak eskeintzen dauzan frutu, janari ta edari berezik.

Dantza Prima egingo dabe Portuari begira atzerritarren oroimenez, "Restallon" erritar oituragaz ta betiko gau zuziariakin jaiak amaituz.



# Begoñako Andra Maria Tenerifeko Almacigan



1.945 an gazte talde bat Bilbotik Konpostelarrantza doa itxasontzi batean. Alango baten gazte bateri (izenez Martin Valle García) bururatu jakon Begoñako Ama Birjiñaren bost estampa, botilla baten sartu ta itxasora jaurtitzea.

Ona emen erromesen ziurtagiriaren atzekalden idatzitakoa: “1948 abuztuko 27 an. Bilboko Ekin-tza Katolikako 35 gazte taldea Konpostelarrantza Aragoi itxasontzian bideratuz, agurtzen dabez mezu onen aurkitzaleak, Jaunari eskatuz egun baten zeruan alkartu al izatea”.

Urte bete geroago (1949-jorrailleko 29an) zorrioneko botillatxua Tenerifeko Almacigako ondartzara eldu zan.

Inguruko baserritar batzuk ikusi eben eta barrukoa ikertu gurean Parroko zanaren eskuetan ipiñi eben. Ain zuzen be, Parroko Jauna Jesusen Lagundikoa zan eta bilbotarra, jatorra ta Begoñako Amaren zale sutsua. Izenez, Luis Egiraun. Laster askoan zabaldu eban bilbotarren artean Begoñako Amaren irudiaren aurkikuntza Almazigako ondartzean. Bilbotar mariñelak Ama Mariaren zale ba ziran, ez gitxiago Alamacigan ondartzeta inguruko arrantzaleak. Alan ba mirarizko gertakizun lez onartuaz, Begoñako Irudiaren bardintsu egitea eskatu eutsoen Larrea Jauna irudigillari.

Kostu andiko lana, baña mesedegille bikañen eskuzabaltasunez ordaindu ziran irudia, bitxi ederezko jantziak, zillarrezko peana, urrezko itargi adarra, Birjiñaren makilla ta Ama Semearen burestunak.

Irudigilleak Sendeja kalean zeukan lantegian irudia osotu ostean ikusle ta zale txaloen artean Santurtzeko nasaraño eroan eta Urkiola Mendi itsasontzian sartu 1950-05-2an.

Egun batzuk geroago Santa Kruz garrantzizko potura eldu zan. Arrakasta andiko arrera egin eutsoen erritarrak eta jarraitzale ugari artean eroan eben babesa izango eban baselizarraño.

Urtero ospatzen da Begoñako Amaren jai ederra jorrailleko azken igande-domekan